

Amatasun bizigarriak

Oihane Larretxea
de la Granja

Egun osoa alde batetik bestera korrikan aritu eta hala ere iristen ez zaren sentsazioa. Dena egin nahian, eta ondo gainera, asko eskatzea ez bada. Zuk ahal duzu. Hala saldu dizute eta hala erosi duzu. Pinotxori Pepito kilkerra agertzen zaion bezala agertzen zaizulako zuri sistema. *Erre que erre*, pixka bat gehiago estutzen, torlojuak beti duelako tarte txiki bat gehiago.

Lanik egingo ez bazenu bezala umeak hezi; umerik izango ez bazenu bezala lan egin.

Batean zein bestean nahiko zenukeen horretara ezin ailegatzearen frustrazioa,

ahalegindu arren. *Quien mucho abarca poco aprieta*. Edo aitona esaten zuen bezala: «Azkar eta ondo, usoak hegan».

Etixeratzean gogoratzen zara utzi zuzula ontzi-garbigailua hustu gabe eta ez zarela farmaziatik pasatu alabaren Ventolina eroatera. Lagun batek duela egun batzuk mezu bat idatzi zizula gogorazten dizu, eta ea zer diozun. Ez dizu ezer leporatzen, baina erantzun... ez diozu erantzun. Hori horrela da.

Pediatrak deitu dizu, biharko lortu duela presazko tarte bat egitea. Antolatu. Eta gauero legez gurasoei deitu eta puzzlea osatu, adostu. Baiezko bat telefonoaren beste aldean. Sarea. Posible al da hori gabe? Eskatzea ez zait xamurra

egiten, baina egunero eskatzen dut. Aitortzen dut.

Gauzak honela, haziera sarerik gabe ez dela bideragarria aipatu zuen Estitxu Fernandezek Erika Lagomarekin batera idatzi duen “M ama* eme* ume*” liburuaren aurkezpenean. Erabat ados. Eta Adrienne Rich parafraseatu zuen: amatasunaren bizipenek ez gaituzte zapaltzen, ez dute zertan izan itogarriak. Zapaltzen gaituena sistema dela. Zein muturretan kokatzen gaituen sistemak berak. Gauzak ditut hobetzeko, jakina, baina herrena den ereduan nekez bete daiteke paper bikain bat. Kulpa sarri aipatu dute amek liburuan. Sistemak sentitu al du hori inoiz? •

«Adorea ero da»

Koldo Sagasti

Maiatzaren 27an, Roberto Sanchez doktoreak, Osakidetzan 22 urtez lanean aritu ostean, erakundea uzteko bere asmoa iragarri zuen prentsan argitaratutako artikulu batean. Idazkian Arrasateko ospitaleko anestesistak azaldu zuen bere erabakia hiru urtez lan jazarpena pairatu izanaren ondorioa izan zela; izan ere, Sanchez 2019an osasun zerbitzu publikorako lan eskaintzaren iruzur sistematikoa salatu zuten hiru sendagileetako bat izan zen. *Galenoek* azalarazi zuten erakunde publikoaren espezialista lanpostuak esleitzeko prozesua errotik ustela dela, plazak mesede kate ba-

ten arabera banatzen direla, eta egoera instituzionalizatua eta egiturako kate maila guztiek ezagutua eta onartua dela. Ausardiak erietxeko zuzendaritzaren jomugan jarri zituen hirurak, euren lan eta bizi baldintzak jasanezinak bihurtzeraino. Azkenean, egoera itogarriari eutsi ezinik amore eman du Sanchezek.

Horrelaxe funtzionatzen dute sistemaren zirrikituek eta Arrasateko hiru-eren afera osasungintza publikoaren egiturak –administrazioaren beste arlo askotakoak bezala– hezur-muineraino kutsatzen dituen sistema mafioso baten adibide argia da. Segur aski hiru aneste-

sisten ekimena eraginkorragoa zatekeen euren atzetik mediku gehiago agertu balira ustelkeria salaketarekin bat egiteko prest, baina horixe da, hain zuzen, sistematizatutako iruzur eta nagusikeria sistemari eusten diona, beldurra.

Nolanahi ere, asko daukagu eskertzeko sendagile hauei zerbitzu publikoetan sinisten dugunok, jarrera koherente eta duinaz gain sistemari esku hutsik aurre egiteko erokeria puntu bat ere erakutsi dutelako. Izan ere, profesional zintzo eta erosezina ez ezik itzal handiko palindromogilea izanik, Sanchezek berak esango lukeen bezala, «adorea ero da». •